



PRENTSA OHARRA

UROLA-GARAIA IZANGO DA GAZTEEK INDARKERIA SEXISTAREN AURKAKO BERAIEK GAITZEZPENA ERAKUSTEKO AURTENGO LEKUA

- Emakundek bultzatutako eta hiru Foru Aldundien eta EUDEL-en parte-hartzearekin Beldur Barik 2014 programaren amaiera ospatuko dugu azaroaren 29an Urretxun eta Zumarragako Topaketan.
- Beldur Barik programak 224 ikus-entzunezko lan jaso ditu. Lan horiekin, neska eta mutilak erakusten dute nola egiten dieten aurre ezberdintasunezko eta indarkeriazko egoerei errespetuan, parekidetasunean, askatasunean eta autonomian oinarritutako jarrekin.
- Programak eskaintzen die gazteei indarkeria sexista identifikatzeko eta horiei Beldur Barik Jarrerarekin aurre egiteko tresnak.
- Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna dela eta, instituzioek deitu egiten dute puntu lila erabiltzera emakumeenganako indarkeriaren aurkako ikur bezala.

Urola-Garaia, 2014ko azaroaren 24a.

Beldur Barik programa, gazteekin batera, indarkeria sexista prebenitzeko urteroko programa da. 2009an jarri zen abian Emakundek eta EUDEL-ek bultzatuta, Berdinsarea-Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskadiko Udalen Sarea-ren esparruan. Egun, Emakundek bultzatzen du eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundien, zein EUDEL-en babes eta finantziazioa jasotzen ditu. Gainera, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren, Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHU) eta EITBren laguntza du.

2014ko Beldur Barik Topaketa Urola-Garaian, Zumarragan eta Urretxun, ospatuko da azaroaren 29ko arratsaldean, larunbata. Jaiak balio izango du urte osoan zehar, euskal geografia osotik gazteekin garatutako lan handiari amaiera emateko. Topaketan Beldur

Barik ikus-entzunezko lehiaketaren (12 eta 26 urte bitarteko gazteei zuzendutakoa) sariak banatuko dira. Ikus-entzunezko adierazpenak saritzen ditu, neska eta mutilek ezberdintasun egoerei nola egiten dieten aurre, errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzukidetasunean eta indarkeria sexistaren ukapen irmoan oinarritutako jarrerak.

Edizio honetan 224 izan dira aurkeztutako lanak. Horietatik 123 lehen kategoriakoak dira, 12 eta 17 urte bitartekoena. Bigarren kategoriari dagokionez, 18 eta 26 urte bitartekoa, 101 lan aurkeztu dira. Katetoria bakoitzeko bi sari banatuko dira: 500 euroko lehen sari eta 300 euroko aipamen berezia. Horietaz gain, beste bi sari ere banatuko dira. Web-gunean egingo den herri-bozkaketarekin herria-saria aukeratuko da eta 300 euroko saria jasoko du. Eta, aurtan lehen aldiz, ikus-entzunezko ekoizpen onena baloratuko da 300 euroko sariarekin eta EAEko (oraindik zehazteke) jaialdietatik hedatua izateko aukerarekin. Era berean, nabarmentzekoa da tokian-tokiko Beldur Barik lehiaketa ugari antolatu direla.

Aurkeztutako lanetan ikusten da gazteek geroz eta hobeto identifikatzen dutela indarkeria sexistan eragiten duten faktoreak. Zentzu horretan, lanak indarkerian baino gehiago berau indartzen duten ezberdintasun egoeratan zentratzen dira eta oso positiboki baloratzen da programak ezberdintasunezko egoera horietan eragin nahi baitu.

Beldur Barik bultzatzen duten instituzio guztiek nabarmentzen dute gazteekin indarkeria sexistaren prebentzioa lantzearen garrantzia. Nahiz eta gazteengan indakeriak eragin handia izaten jarraitzen duen, geroz eta tresna gehiago dituzte erasoak identifikatu ahal izateko.

Beldur Barik bezalako programek laguntzen dute gazteen, eta batez ere nesken, indarkeria sexistaren identifikaziorako tresna horien eskuratzean. Gazteen jabekuntza eta indartze prozesuak errazten dituzte, eta, gainera, ezberdintasun eta indarkeria egoeren aurrean erantzuteko gaitasunak indartzen dituzte. Hausnarketa prozesu horiekin, aldi berean, mutilek egoera horietan duten protagonismoa eta ardura identifikatzen dute.

Urola-Garaia, Beldur Barik Herria

Azaroaren 29an Urola-Garaian ospatuko den topaketan, eztabaidak, formazio tailerrak eta ikuskizun ugari ospatuko dira. Tailerrak Zumarragako Zelai Aristi Kultur Etxean garatuko dira, eta sari-banaketa Urretxuko Labeaga Aretoan. Doaneko autobusak erraztuko dira publikoa hiru probintzietatik inolako arazorik gabe hurbildu eta bueltatu ahal izateko.

Honako hauek dira programatutako ekintzak:

- 16:00-16:30 Ongi etorria, autobusen helduera Zumarragako Zelai Aristi Kultur Etxera.
- 16:30-19:30 Tailerrak (Gure gorputzen jabe: hilerokoa bizitzeko moduak; desisaren laborategia; autodefentsa feminista eta rap feminista).
- 19:30-20:00 Kalejira
- 20:00-20:30 Lunch
- 20:30-22:15 Sari banaketa Urretxuko Labeaga Aretoan. Lanen emanaldia
- 22:15 Autobusen irteera Urretxutik.

Informazio gehiago www.beldurbarik.org

Puntu Lila

Bestalde, Azaroaren 25 ospatzeko (Emakumearenganako Indarkeriaren Nazioarteko Eguna), Beldur Barik programa bultzatzen duten instituzio guztiek hiritargoa puntu lila erabiltzera animatzen dute. Gogorarazi nahi dute, gainera, ikurra publikoki erakustek oinarrian emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasun egoerak dituen indarkeriaren aurkako konpromiso aktiboa inplikatzeko duela.



EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES

ANTOLATZAILEA
ORGANIZA



EMAKUNDE

BULTZATZAILEAK
IMPULSAN

